

# Irati Urdangarin Olo

HASIERAKO EGOERA: 1996ko egun batean neska bat jai da.

NOIZ: Otsailaren 6an.

NON: Donostiako ospitalean.

ARAZOA: Papera eta arkatzarekin jolasean hasi da.

EKINTZAK: "Addari" idatzi eta Beasaingo idatz lehiaketan aurkeztu du.

EKINTZEN ONDORIOA: Lehen saria irabazi du.

AMAIERAKO EGOERA: Berriro ere, papera eta arkatza hartu (oraingoan ordenagailua) eta horiekin jolasean hasi da. Mezu hau idatzi du: Mila esker abentura honetan lagundu didazuen guztioi, esker mila bihotz-bihotzez. Irakurleei, gustatuko zaizuelakoan, eskerrik asko tarte bat hartu eta ipuina irakurtzeagatik!



## *ADDARI*

*Londresen, 1995eko urtarrilaren 29an*

Nire bihotzeko Adda,

Eskutitz hau irakurtzen ari bazara, hemezortzi urte bete dituzun seinale da, eta ni urrun izango nauzu. Zeinen eder egongo zaren jada! Ziur naiz ez duzula nire berri izango. Egia esan horrenbeste urte zugandik urrun igaro ondoren ez nintzateke batere harrituko nitaz ahaztu izanaz. Baina uste dut dagoeneko badela garaia egia osoa jakiteko eta niri buruz dituzun oroitzapenei ateratzen uzteko. Horregatik hartu dut, gaurko egunez, eskuetan duzun orri zuria eta boligrafoa, duela horrenbeste urte gertatu zenaren berri izan dezazun.

Nire bizitzaren zati nagusietako bat institutuan nengoenean hasi zen. Neska alaia nintzen, langilea, zure aita bezalaxe. Hura zen gure adinekoren artean mutil galantena. Beti zegoen neskaren bati laguntzeko prest, izan ere, neska guztiak bere atzetik genbiltzan.

Hala eta guztiz ere, bere begi berdeak nigan besterik ez ziren pausatzen, samurtasunez. Ni bai zorioneko! Banekien gustuko ninduela, baina ez nintzen ausartzen onartzen. Gehiegi zen niretzat, neska arrunt bat besterik ez nintzen! Ez nuen batere antzik mutil gehienek atsegin dituzten adats luzeko neskekin. Ez nintzen Barbie panpina, baina ni ninduen gustuko.

Nire adineko neska gehienak inbidiak amorratzen nituen, gaizki gera nendin edozer egiteko prest, Jarritako oztopo guztiei aurre egin nien, ordea, eta horrek indartsuago egin ninduela uste dut.

Maitasuna abesti bat bezalakoa da, bat-batean sortu eta hasi bezain laster amaitzeko arriskua duena. Behin baino gehiagotan esan zidan hori Ianek, baita gurea ez zela inoiz amaituko ere. Oker zegoen, onartu nahi izan ez arren, gureak ere jo zuen hondoa.

Gure abestiaren hasiera pelikuletakoen antzekoa izan zen. Gaua zen eta ni lagunekin nengoan, taberna batean dantzan, musika gure bihotzen taupaden jabe. Bizkarretik hurbildu zitzaidan, isil-isilik. Halako batean esku hotz batzuk nabaritu nituen begien parean. Berehala konturatu nintzen nor zen. Ezer esan baino lehen, itzuli eta berari begira geratu nintzen, nire irribarre politena oparituz. Eskua sorbaldan pausatu zidan, poliki-poliki hurbiltzen joan ginen, gure ezpainak muxu gozo batean elkartu arte.

Ahaztezina izan zen gau hori. Urteak pasa izanagatik ere ederki gogoratzen dut. Ezin dut azaldu sentitu nuena, baina hitz batez deskribatu beharko banu hitz hori "harrigarria" izango litzateke. Baina hori hasiera besterik ez zen izan gure abestiak jarraitu zuen.

Zortea izan nuen. Institutua ezin hobe amaitu nuen. Unibertsitatean sartzea ere lortu nuen, argi nuen zer izan nahi nuen: irakaslea. Beti gustatu izan zaizkit haurrak, eta lana eta gustuak konbinatzeko modu egokia iruditzen zitzaidan. Ianek zuzenbidea ikasi zuen, bere ametsa baitzen egunen batean abokatu famatua izatea.

Ikasturteak gainditzen joan ginen, eta gure abestia ere aurrera zihoan, egunetik egunera hobetzen. Ordurako hogeita bi urte beteak geunden eta gure bizitzaren noranzkoa erabakitzeke ordua iritsi zitzaigun.

Udazkena zen, eta parkean geunden hostoak nola erortzen ziren begira. Banku batean eseri eta eskuetatik heldu ninduen, begietara begira. Urduritu egin nintzen, zer esango zidan asmatu nahian. Oraindik ere gogoan dut elkarrizketa hori. Lotsati samar hasi zen, totelka, hanka behin eta berriz sartuz. Arnasa sakon hartu eta itxaroten ari nintzena esan zidan: "Azura, ezkonduko al zinateke nirekin?". Bere besoetara egin nuen jauzi, baietz eta baietz negar artean esanez.

Ezkontza paregabea izan zen, edozeinek desioko lukeen bezalakoa. Udaberrian izan zen, landareek fruitua ematen duten garaian. Pentsatze hutsarekin bihotza uzkuratzen zait eta hortzak estutu behar izaten ditut. Nola gerta liteke horren bikote ona zirudienak hala amaitzea?

Abestia aurrera zihoan, dena primeran, gure eguneroko errutinaren aldaketa txikiak ere melodian barneratuz, batzuk ia nabarmendu gabe eta besteak, berriz, lau haizetara zabalduz. Azkeneko horietako bat zeu izan zinen, maitea.

Haurdunaldi gogorra izan zen, baina merezi izan zuen. Azkenean iritsi zinen, irribarreak opari balira lez banatuz. Harrigarria da hain izaki txikiak pertsonengan nolako eragina sor dezakeen ikustea. Inguruko guztiak alaitzen zenituen, baita egun txarretan ere. Pena da zure inozentzia horren goiz galdu izana. Ez zen zure errua izan, errealitate gorriak lapurtu zizun, hura bai lapur bikaina! Ni heldua izanik, ordea, zergatik ez zidan lehenago kendu? Uste dut une berean kendu zigula, niri beranduegi eta zuri azkarregi.

Denborak aurrera egin ahala, Ianen eta bion arteko harremana hozten hasi zen, astiro, baina gelditu gabe. Itsututa nengoen, maitasunaren oihalak begiak estaltzen zizkidala. Arraroa egingo zaizu hau pentsatzea, baina urteen poderioz konturatu naiz ordurako ez ninduela maite, niganako zuen begirada hori galdu zuela. Ez iezadazu galdetu zergatik. Zure aita gizon ona da, baina ez nirekin.

Arazoak iritsi ziren eta oso ahul sentitzen hasi nintzen. Lan egiteari utzi nion zutaz arduratu ahal izateko, Ianek lana baitzeukan. Etxeko andre izateari ekin nion –Ez da batere lan erraza, egunen batean konturatuko zara zu ere!– Aste osoan zehar zu zaindu eta senarrarentzat jana prestatzen nuen Ez nuen beste zereginik. Arratsaldero parkera ateratzen ginen, zu eta biok bakarrik, haize fresko pixka bat hartzera. Oso ume alaia zinen eta segituan egiten zenituen lagunak.

Aitarekin, ordea, kontrakoa gertatzen zen: sarriago ateratzen hasi zen. Hasieran astebururo eta gero ia egunero. Ulertuko duzunez, eromena zen niretzat, ez bainekien noiz iritsiko zen. Ohean loak hartu ezinik egoten nintzen, bere zain. Burutik hainbat gauza pasatzen zitzaizkidan: ongi egongo al da? Zerbait gertatu al zaio? Mozkortu egingo al zen? Beti galdera berak ziren, nire buruan behin eta berriz bueltaka, burkoan itsatsita baleude bezala.

Maitasuna abesti bat bezalakoa da. Egia ote? Schuberten eta Beethovenen melodiek ere izaten dituzte errepikapenak. Puntu horretaraino iritsiak geunden jada. Haatik ez nintzen egoera horretaz konturatzen. Gauak bakarrik ematen nituen, gorputza berotuko zidan inor gabe. Itsututa nengoen, bai, baina zer da itsua izatea? Hiztegiko definizio hutsa ala haratago doan zerbait? Ez baita itsua begien bidez ikusten ez duena, bihotzaren bidez bakarrik ikusten duena ere itsua baita. Askotan maiteminak jota egoteagatik gezurrak besterik ez ditugu ikusten, bihotzak sortzen dizkigun ilusio faltsuei jarraitzeko.

Nik hala egin nuen: bihotzari segi, eta badakizu ondorioa. Ez nioke inori desioko nirea bezalako amaierarik. Alabatxo maitea, zergatik niri?

Kontatzen ari nintzaizunez, zure aita egunero ateratzen hasi zen. Geroz eta denbora gehiago ematen nuen bakarrik, isiltasunaren munduan murgildurik. Ludi ilun horretan sartuz gero, galduta zaude; oso zaila da bertatik ateratzea eta ni ez nintzen salbuespena.

Abestia, abestia, abestia, amaitua zen ordurako? Ez horixe! Okerrena gertatzeke zegoen.

Iluntasuna jaun eta jabe nuelarik, zu zinen argi bakarra nire zerumugan, indartsu irauteko behar nuen faroa. Zurekin igarotako memento onenak ere Ianek lapurtzen zizkidan. Bere begi berdeek ez zidaten gozotasunez begiratzen, higuinez baizik. Egunak luzatu ahala txikitzen zen esperantza. Ez zitzaidan malkorik geratzen, denak isuri nituen ordurako. Denborak ere nekez sendatzen duen zauria egin zidan zure aitak, oraindik ere irekitzen zaidana. Ezagutu nuen gizon ona izango ahal da zurekin, maitea!

Zure aitak ez dit inoiz eskurik gainean jarri. Are gauza okerragoak egiten zituen: bere arma onena erabiltzen zuen: hitza. Hitzak ziren bai, deabruaren hitzak, punta zorrotzeko jostorrazak, bere ezkutuko armak. Zerbait esaten zidan bakoitzean orratz batek zulatzen zuen nire bihotza, Haydnen 94. sinfoniako bigarren mugimenduko notek bezala. Askotan hitz solte batek arimaren hesia ere zeharka dezake, zaren guztia aurretik eramanez.

Beste mundu batean nengoen, galduta, etxerako bidea aurkitu ezinik. Beltza zen dena niretzat, argitasun izpirik gabea. Zu ere galdua zintudan, zure aitak kontratatutako emakume baten eskuetan. Ohean pasatzen nituen gauak eta egunak, isilik. Azken batean uste bainuen hori zela egin nezakeen gauza bakarra: ahoa itxi eta baietz esan. Tuntuna nintzen bai, tuntuna; horrenbeste sufrituta ere maite bainuen.

Beranduegi konturatu nintzen egiten ari nintzen okerraz. Zuzentzen saiatu nintzenerako beranduegi zen, kaltea egina zegoen. Onena nahi nuen zuretzat, nire alaba bakarrarentzat. Erabaki bat hartu nuen. Ausardiak beteta, emakume askok bizitza osoan zehar egiten ez dutena egin nuen: dibortzioa eskatu.

Ian harri eta zur geratu zen, ez zuen espero adorerik izango nuenik. Danbateko batez itxi zuen etxeko atea eta kalera irten zen, biraoka. Isiltasuna egin zen etxearen jabe eta denbora askoan ez bezala sentitu nintzen. Malko batek ihes egin zidan, azkena izango zela hitz eman nion neure buruari. Aske nintzen, libre, lasai hegal egiteko. Eskuak bihotzera eraman eta argi izpi bat ikusi nuen, nire sufrimenduaren amaiera adieraziko zuena.

Zure aitak behin eta berriz errepikatzen zidan erabaki okerra hartu nuela, baina irmo eutsi nion. Zuregatik egin nuen dena, egunen batean nire alboan izateko. Eginahalak eginda ere, alferrik izan zen, guda hori galdu egin nuen. Ezin izan zintudan nire besoetan denbora luzez izan, epaiketa amaitu zenerako Ianek eraman zintuen, nigandik urrun.

Badakizu, abokatua zen, oso ona, gainera. Hitzaren dohaina lagun zuen eta epailea konbentzitzea lortu zuen. Egiten nizkion akusazio guztiak errefusatzeko zituen, ez bainuen frogarik. Hori da hitzek duten gaitasunetako bat: ez dute arrastorik uzten, isilik dira. Baina, nekez ezabatzen dira gogotik. Nik oraintsu arte sentitu ditut taupada bakoitzarekin batera.

Gaixo nengoen, hori ote? Zu nigandik urruntzeko horixe bera esan zuen, ez nengoela egoera onean, irudimen handiegia nuela, mundu irreal batean bizi nintzela. Egiak askotan gezurrak adina min ematen duela diote, zuk uste? Gezurren bidez eraman zintuen, ni gela ilun batean utzita.

Gezurren artean hazi zara, zure izatearen alde bat ezagutu gabe. Orain badakizu egia osoa: zure aitaren eta bion arteko maitasuna sua balitz bezala itzali zen, gure abestiari amaiera emanaz.

Abesti berri bat konposatu nahi baduzu, Adda, hona nire helbidea:

Azura Winslow

*London Psychiatric Hospital.*

850 Highbury Avenue P.O. Box 5532, Terminal A, London, OH, N6A 4H1

Canada

Tel: 519-455-5110

Ama

Katy